



Bizi euskara zure erara. Zuk nola bizi duzu?
Vive el euskera a tu manera. ¿Tú cómo lo vives?
Vis l'euskara à ta façon. Toi tu le vis comment?

ZUBIDEAK2 AURKEZTU DA BEASAINGO IGARTZA JAUREGIAN

18-09-12 Beasain

Urriaren 20an Donostiako Miramar Jauregian “Bizi euskara zure erara. Zuk nola bizi duzu?” lemapean burutuko da gizarte elkarrizketa

21 eragilek Zubideiak 2rako deia egin dute

Urriaren 20an Donostiako Miramar jauregian egingo den “Zubideiak2” gizarte elkarrizketa aurkeztu dute 21 eragilek, Euskara, Aniztasuna eta Elkarbizitza gaia hartuta eta **“Bizi euskara zure erara. Zuk nola bizi duzu?”** lemapean.

Beasaingo Igartza jauregian egin den aurkezpenean lehen hitzak Jasone Mendizabal eukaltzaleen Topaguneko zuzendariaren eta Alina Blanco emigrados sin frontieraseko kidearen eskutik heldu dira. Urriak 20an egingo denaren nondik norakoak azaldu dituzte eta gizarte elkarrizketa honen eta gehiagoren beharraren zegartia azaldu dute

“Euskararekiko bizipen askotarikoak dituztenen arteko elkarrizketa” Jasone Mendizbal

Jasone Mendizabalek azaldu duenez, gizarteak aldaketa asko izan ditu azken hamarkadatan, inoiz baino anitzagoa da gure herria eta inoiz baino hizkuntza gehiago entzun ditzakegu era berean, gure kaleetan, 100 baino gehiago. Denon hizkuntza den euskara bidegurutzean dagoela bolo-bolo dabil azken aldian eta bidegurutzean egoteak bide berriei ekiteko aukerak ematen dizkigu. Euskararen garapena gizarte osoaren ardura dela sinistuta daude Zubideiak 2 bultzatzen duten eragileen artean; era berean aniztasunak euskarari zein elkarbizitzari, aberastasuna eta aukera berriak ekar diezazkiokeela adierazi du Mendizabalek. Askotarikoak dira eguneroko bizitzan herritarrek euskararekiko dituzten bizipenak, gertukoak batzurenak, urrunak besteenak, goxoak, mingarriak, sutsuak, aurkakoak, epelak, anitzak, kontraesankorrak, ilusionagarriak... Askotariko bizipen horiek partekatzea, elkarrekin ideia eta galdera

berriak sortzea eta elkarrekin aurrera egiteko zubiak eraikitzea bilatzen dugu urriaren 20ko topaketarekin

“Euskaraz ez dakitenen parte hartzea ere helburu”

Alina Blanco

Alina Blancok, Emigrados sin Fronteraseko kideak, hiru ideei nagusi adierazi ditu. “Etorkin talde garen heinean, badakigu euskal gizarteko kide garela eta gure lana dela gizarteratzea”. Gizarteratzeko prozesu horretan, gure erronketako bat da euskara gureganatzea, hura aitortzea, harengana hurbiltzea, eta, hala, hartu gaituen lurraldearen errealitatea eta ohiturak ulertzea eta gure egunerokoan txertatzea. Euskararen sustapenak gure gizarteratzeko eta Euskadiren, hartzen gaituen lurraldearen, kultura ulertzeko prozesuari lagundu eta hura errazten du.

Emigrad@s sin Fronteras elkarteak Euskadiko aniztasun kultural eta etnikoaren ezagutza abiapuntutzat hartzen du, kultura, etnia eta jatorri askotako taldeen arteko elkarrizketa eta elkargunea sortzeko. Horregatik, badakigu gure aniztasunak aberasten duela, eta horren bitartez, Euskadiko zati sentiarazten eta bihurtzen laguntzen diguten loturak sortu behar ditugula. Euskara kulturen arteko lotura hori errazteko tresna bat da, elkarren artean hurbiltzeko eta batera bizitzeko.

Parte-hartzaileen arteko aniztasun handiak euskara ikastea dauden behar eta interes desberdinak eta hizkuntzara hurbiltzea eragozten diguten oztopoak ulertzea eta agerian uztea ahalbidetuko du, baita euskara ikusarazten eta azaleratzen ere. “Euskaraz ez dakitenen parte hartzea ere helburu” izango du Urriaren 20an burutuko den gizarte elkarrizketa.

Zubideiak 2ren atzetik 21 bat eragile daude eta horien guztien izenean hitz egin dute Mendizabalek eta Blancok. : EDE fundazioa, Agirre Lehendakaria Center, AEK, Elhuyar, Euskal Herriko Unibertsitatea, EH 11 Kolore, EMUN, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Jatorkin Al-nahada, Urtxintxa, Biltzen, Gune Irekiaren Lagunak, Soziolinguistika Klusterra, Euskaltzaindia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Aniztasun Saila, Kutxa-Ekogunea, Bagera Elkartea, Emigrados Sin Fronteras, Garabide eta Euskaltzaleen Topagunea.

Gizarte Elkarrizketarako erabiliko den metodología azaldu du era berean Iñigo Retolazak, gunea dinamizatuko duen erraztaileak. Metodología bera erabili da gaur goizean sustatzaile taldeak urriaren 20ra eraman nahi dituen galderak prestatzeko. Hauek dira, besteak beste, goizeko saioan atera diren zenbait proposamen:

Partehartzaile guztien artean gaien agenda osatu, hausnartu eta ekintzak proposatu egiten dira. Aurrez adostutako gai zehatz baten inguruan, agertzen diren pertsonen lekuan bertan betetzen dute solasaldiaren agenda nahi dituzten gaiekin. Jendearentzat esanguratsuak diren gai guzti horiek hainbat berbatxokoetan lantzen dira eta

solasaldi bakoitzaren txosten bat osatu ere. Nola berbatxokoetan aritzen diren taldeak anitzak dira, hainbat hausnarketa berri edota berriztuak emateko aukera ematen du. Informazio guzti horrekin bigarren solasaldi bat ematen da, oraingoan ekintza proposamenak uztatzeko eta bilakatzeko helburuarekin.

Gune Irekia Teknologia jendarte elkarrizketa anitza eta inklusiboa errazten duen metodologia bat da. Gune Irekia harremanak errazteko eta ezberdin pentsatzen duten pertsonak elkartzeko era auto-kudeatu bat da.

“Hiritarren arteko topaketa hauek zeharo motibatzaileak dira; gure herriaren baitan elkarrizketaren kultura sustatuz era sortzaile eta inklusibo baten bidez.”

Galdera hauei parte hartzaileen galderak eta proposamenak gehituko zaizkie urriko topaketan eta egunean bertan erabakiko da elkarrizketarako egitaraua.

Gune Irekiaren metodologiak parte hartzaileen interesak, galderak eta kezkek jartzen ditu erdigunean, parte hartzaileak beraiek baitira eguneko agenda proposatu eta erabakiko dutenak. Era beran, larunbat horretako arratsalde osoa ekintza proposamenak lantzeko espazioa hartuko da.

Bukatzeko, saioaren amaieran egunak eman duen guztiarekin txostena osatuko da eta parte hartzaile guztien eskuetan jarriko da egun horretan bertan. egunak eman duenaren emaitza.

Urriak 20 Miramar Jauregian gizarte elkarrizketan parte hartzeko izen emate epea zabalik da, irailak 12-tik Urriaren 11 arte. Gerturatzen direnak dohakoa izango dute jauregian bertan umeen zaintza zerbitzua. Bazkaria 10 euro izango dira

Zubideiak-en lehenengo edizioan parte hartzaileen laurdena gutxienez euskaraz ez dakiten herritarrak izatea jarri zen helburu moduan eta helburua lortu zen. Helburu berarekin abiatu da bigarren edizio hau.

Elkarrizketa honetara ekarri nahiko genuke gizartean dagoen aniztasunaren lagin bat eta izen emate garaian aniztasun hau eman dadin lan egingo dugu Zubideiak 2ko sustatzaileek. Ezberdintasunetatik abiatuta, jarrera kolektiboa indartzea dugu helburu gizarte elkarrizketa honekin.

Horrez gain, Zubideiak laborategi bat izango da, hizkuntza praktiken laborategia, izan ere euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez gutxienez gauzatuko da. Pertsona bakoitza eroso sentitzen den hizkuntzan hitz egin ahal izateko praktika berriak bilatuko dira.